| UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA | LEGAZPIKO UDALA | ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL |
| --- | --- | --- |
| 2012/03/14 | | 14/03/2012 |

**Organoa edo batzordea:** Osoko bilkura
**Bilera-mota:** ohiz kanpokoa.
**Eguna:** 2012/03/14.
**Ordua:** Hasiera: 13:00.
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzitimuño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Igor Urrate Ugarte, Bildu.
Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu.
Raquel Puente Irurtia, Bildu.
Javier Iraeta, EAJ.
Ane Urkiola Alustiza, EAJ
Aitor Madina Murua, EAJ.
Oscar Valbuena Pascual, PSE.
Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.
Ainhoa Urruela Bordegarai, behin-behineko idazkaria.
Fernando Arakama, kontu-hartzailea.
Ane Mendinueta, Udal Arkitektoa.

**Aztergaiak:**

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

1. Hala badagokio, joan den 2011ko uztailaren 27an Legazpiko Udalaren Osoko Bilkurak hartu zuen erabakia ofizioz berrikustea ez dela egokia adieraztea. Orduan hartu zen erabakiaren arabera, udal eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedienteari hasiera ematea onartu zen, dagozkion agiri teknikoak eta administratiboak onetsiz.

2. Bidezkoa bada, joan den 2011ko uztailaren 27an Legazpiko Udalaren Osoko Bilkurak udal eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedienteari hasiera emateko hartu zuen erabakia kaltegarritzat jotzeko espedienteari hasiera ematea, legeria urratzen duelako deuseztasun-arrazoian sartuta egon daitekeelako.

**Organo o comisión:** Pleno.
**Tipo de convocatoria:** extraordinario.
**Día:** 14/03/2012
**Hora:** Comienzo, 13:00.
**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzitimuño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Igor Urrate Ugarte, Bildu.
Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu
Raquel Puente Irurtia, Bildu.
Javier Iraeta, PNV.
Ane Urkiola Alustiza, PNV
Aitor Madina Murua, PNV.
Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.
Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.
Ainhoa Urruela Bordegarai, secretaria accidental.
Fernando Arakama, interventor.
Ane Mendinueta, Arquitecta Municipal.

**Orden del Día:**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

1. Declarar, en su caso, que no procede la revisión de oficio del Acuerdo Plenario de 27 de julio de 2011del Ayuntamiento de Legazpi por el que se acordó dar inicio al expediente de contratación del servicio de limpieza de los edificios municipales, aprobando los pliegos técnicos y administrativos correspondientes.

2. Iniciar, si procede, el expediente para la declaración de lesividad del Acuerdo Plenario de 27 de julio de 2011 del Ayuntamiento de Legazpi por el que se acordó dar inicio al expediente de contratación del servicio de limpieza de los edificios municipales, ante la eventualidad de que el mismo se halle incurso en causa legal de anulabilidad por vulneración de la legislación.

3. Bidezkoa bada, 24/25/29.1. AGIRRE-ETXEBERRI jarduketa integratua gauzatzeari buruzko hirigintza-hitzarmenaren lehen aldaketa behin betiko onartzea

4. Bidezkoa bada, 24/25/29.1 AGIRRE-ETXEBERRI Jarduketa Integratuko Hiri-antolamenduko Plan Bereziaren aldaketa behin betiko onartzea.

5.Elbarreneko errauspen-labeak kokatzen diren lursailaren segregazioa eta lagapen eskrituren onarpena eta emandako lizentziaren berrespena

**LANGILEAK:**

6. Bidezkoa bada, basoko peoiak eta mantentze lanetarako ofizialak lanpostuak baloratzeko aurkeztutako eskaerak izapidetuko direla onartzea.

3 Aprobación definitiva, si procede, de la modificación del Convenio Urbanístico relativo del ámbito de Actuación Integrada A.I. 24/25/29/.1 AGIRRE-ETXEBERRI.

4. Aprobación definitiva, si procede, del Plan especial de Ordenación Urbana del ámbito de Actuación Integrada A.I. 24/25/29/.1 AGIRRE-ETXEBERRI.

5. Aprobar la escritura de segregación y cesión de los terrenos donde se ubican los hornos crematorios de Elbarrena y ratificar la licencia concedida.

**PERSONAL:**

6. Aceptar a trámite, si procede, las solicitudes de valoración realizadas por el peón forestal y por el oficial de mentenimiento.

**Esan-eginak eta erabakiak**

**Eguneko aztergaiak:**

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

**1. Hala badagokio, joan den 2011ko uztailaren 27an Legazpiko Udalaren Osoko Bilkurak hartu zuen erabakia ofizioz berrikustea ez dela egokia adieraztea. Orduan hartu zen erabakiaren arabera, udal eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedienteari hasiera ematea onartu zen, dagozkion agiri teknikoak eta administratiboak onetsiz.**

**2. Bidezkoa bada, joan den 2011ko uztailaren 27an Legazpiko Udalaren Osoko Bilkurak udal eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedienteari hasiera emateko hartu zuen erabakia kaltegarritzat jotzeko espedienteari hasiera ematea, legeria urratzen duelako deuseztasun-arrazoian sartuta egon daitekeelako.**

Alkateak hartu du hitza eta lehenengo bi puntuak batera bozkatuko direla esan du.

**Temas tratados y debatidos:**

**Orden del Día:**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

**1. Declarar, en su caso, que no procede la revisión de oficio del Acuerdo Plenario de 27 de julio de 2011del Ayuntamiento de Legazpi por el que se acordó dar inicio al expediente de contratación del servicio de limpieza de los edificios municipales, aprobando los pliegos técnicos y administrativos correspondientes.**

**2. Iniciar, si procede, el expediente para la declaración de lesividad del Acuerdo Plenario de 27 de julio de 2011 del Ayuntamiento de Legazpi por el que se acordó dar inicio al expediente de contratación del servicio de limpieza de los edificios municipales, ante la eventualidad de que el mismo se halle incurso en causa legal de anulabilidad por vulneración de la legislación.**

Toma la palabra el Alcalde Se votarán a la vez los dos primeros puntos.

**IKUSIRIK,** 2011ko azaroaren 11ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera, Legazpiko Udalak joan den 2011ko uztailaren 27ko Osoko Bilkuran hartu zuen erabakia ofizioz berrikusteko prozedurari eman zaio hasiera. Uztaileko Osoko bilkuran hartutako erabaki horren arabera udal eraikinak garbitzeko kontratazio-espedienteari hasiera ematea erabaki zen, horretarako dagozkion agiri teknikoak eta administratiboak onartuz;

**IKUSIRIK,** espedientean bidezko dokumentu guztiak sartu direla eta, interesdunak entzun ondoren, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoari dagokion txosten derrigorrezkoa eta loteslea eskatu zitzaiola, beti ere, Legebiltzarreko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.g) artikuluan aurreikusitakoaren arabera;

**IKUSIRIK,** aipatu Aholku Batzorde Juridikoak joan den 2012ko otsailaren 15ean egin zuen bilkuran 28/2012 zenbakidun irizpena eman zuela eta, bertan, 2011ko uztailaren 27ko Osoko Bilkuran erabakia ofizioz berrikusteko hartutako erabakia bidegabea dela ulertu duela. Irizpen horri 2012ko otsailaren 23an eman zitzaion sarrera udaletxean.

**IKUSIRIK,** organo aholku-emailearen irizpenak, Legazpiko Udalak bezalaxe, egindako esleipena indargabetzen duen arau-haustea egon dela ulertzen duela.

**IKUSIRIK,** Administrazioarekiko auzien epaitegiaren aurrean atzera bota aurretik, kaltegarritzat jotzea bidezkoa dela hartutako erabakietan deuseztagarritasunaren akatsa dagoelako.

**KONTUAN IZANIK,** Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 103. artikuluak honakoa dioela: "Interesdunen aldeko egintzak izanda, lege honen 63. Artikuluaren arabera deuseztagarri diren egintzak badira, egintzok interes publikorako,

**VISTO** el expediente de revisión de oficio iniciado en virtud de Acuerdo Plenario de 11 de noviembre de 2011, respecto del Acuerdo de 27 de julio de 2011 por el que se acordó dar inicio al expediente de contratación del servicio de limpieza de los edificios municipales, aprobando los pliegos técnicos y administrativos correspondientes;

**RESULTANDO** que una vez incorporados al mismo todos los documentos que se consideraron pertinentes; efectuado el trámite de audiencia correspondiente, se procedió a la solicitud de informe preceptivo y vinculante de la comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco en los términos previstos en el artículo 3.1 g) de la Ley 9/2004 de 24 de noviembre del Parlamento Vasco;

**RESULTANDO** que en sesión de 15 de febrero de 2012 de la mencionada Comisión Jurídica Asesora, la misma dictó su dictamen con el número 28/2012 entendiendo improcedente la revisión de oficio del Acuerdo Plenario de 27 de julio de 2011, lo que tuvo entrada en el Ayuntamiento el día 23 de febrero de 2012;

**RESULTANDO** que en el Dictamen del Órgano Consultivo al igual que el Ayuntamiento de Legazpi, entiende de la existencia una infracción que desvirtúa la adjudicación realizada.

**RESULTANDO** que al existir una vicio de anulabilidad en los acuerdos adoptados, procede su declaración de lesividad, previa su impugnación ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo

**CONSIDERANDO** que el artículo 103 de la Ley 30/1992 del Régimen Jurídico y del Procedimiento Administrativo Común, establece que las Administraciones públicas podrán declarar lesivos para el interés público los actos favorables para los interesados que sean anulables conforme a lo dispuesto en el artículo 63 de esta Ley, a fin de proceder a su

kaltegarritzat jo ditzakete herri-administrazioek, gero administrazioarekiko auzien jurisdikzioan egintza horien aurka egiteko". Horrezaz gain, artikulu berean hau jasotzen da: "Administrazio-egintza eman zenetik lau urte igaro eta gero, ezin izango da egintza kaltegarritzat jo; egintza kaltegarritzat jo aurretik interesdun gisa agertzen diren guztiei entzunaldia eskainiko zaie, lege honen 84. artikuluan ezarritakoari jarraituz".

**KONTUAN IZANIK,** izapidetu den administrazio-espedientean dauden txosten juridikoetan jasotakoa eta Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

**KONTUAN IZANIK,** antzemandako gabezia eta horrek ekar ditzakeen ondorioak larriak direla, deuseztagarritasunaren arrazoia dagoela. Ondorioz, kaltegarritzat jo behar da uztailaren 27ko Osoko Bilkuran hartu zen erabakia eta ondoren kontratazio-espedientean hartutako erabakiak. Hortaz, esleipen berriari ekin behar zaio, kontratazio-espedientea izapidetu eta gero.

**KONTUAN IZANIK,** 2011ko uztailaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakia beharbada erabateko deuseztagarritasunean erori dela (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 31. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, 30/1992 Legearen 62.1.g. artikulua), prestatze-egintzak eta horren ondorioz ondorengo esleipena baliogabeak izan direlako.

**KONTUAN IZANIK,** Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 102.1 artikuluan ezarritakoa eta, esan den bezala, aipatu irizpena loteslea dela, bere edukia erabaki hau hartzeko arrazoitzat hartu da eta, ondorioz,

Aipatutako aginduak eta aplikagarriak diren bestelakoak ikusita, Legazpiko Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak (aho batez, gehiengoz,...) ondoko **ERABAKIA** hartu du:

ulterior impugnación ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, y que la declaración de lesividad no podrá adoptarse una vez transcurridos cuatro años desde que se dictó el acto administrativo y exigirá la previa audiencia de cuantos aparezcan como interesados en el mismo, en los términos establecidos por el artículo 84 de esta Ley.

**CONSIDERANDO** lo recogido en los informes jurídicos obrantes en el expediente administrativo tramitado, así como en el Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora.

**CONSIDERANDO** que dada la gravedad de la deficiencia detectada y las consecuencias que detrae, existe una causa de anulabilidad, debiendo de procederse a la declaración de lesividad del acuerdo plenario de 27 de julio, y de los posteriores acuerdos adoptados en el expediente de contratación, y procederse a una nueva adjudicación, tras la tramitación del expediente de contratación.

**CONSIDERANDO** que el Acuerdo Plenario de 27 de julio de 2011 podría haber incurrido en anulabilidad (artículo 63), de la Ley 30/1992, en relación con el artículo 31 de la LCSP, al resultar inválidos los actos preparatorios y como consecuencia de ello la posterior de adjudicación

**CONSIDERANDO** lo dispuesto al efecto en el artículo 102.1 de la Ley 30/1992 del Régimen Jurídico y del Procedimiento Administrativo Común, y en atención a que, como ya se ha señalado, el mencionado dictamen resulta vinculante, se tiene su contenido como motivo de la presente resolución y, en consecuencia

Vistos los preceptos citados y demás de general aplicación, el Pleno del Ayuntamiento de Legazpi por (unanimidad, mayoría, etc.) se adopta el siguiente **ACUERDO:**

**Lehenengoa:** Legazpiko Udalak joan den 2011ko uztailaren 27ko Osoko Bilkuran hartu zuen erabakia ofizioz berrikustea bidezkoa ez dela deklaratzea. Uztaileko Osoko bilkura hartan hartutako erabaki horren arabera udal eraikinak garbitzeko kontratazio-espedienteari hasiera ematea erabaki zela, horretarako dagozkion agiri teknikoak eta administratiboak onartuz.

**Bigarrena.** Erabakiaren berri Aholku Batzorde Juridikoaren idazkari jaunari ematea, Eusko Jaurlaritzako azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**Hirugarrena:** Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedienteari hasiera ematea erabakiz joan den 2011ko uztailaren 27an Legazpiko Udalaren Osoko Bilkurak hartu zuen Erabakia kaltegarritzat jotzeko espedienteari hasiera ematea. Erabaki hori hartzea proposatzen da, egindako esleipena baliogabetzea ekarri duen erabakia legeria urratzeagatik deuseztagarritasunaren kausa legalean erorita egon daitekeelako.

**Laugarrena:** Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. artikuluari buruz 102. artikuluan aurreikusita dagoen entzunaldiari hasiera ematea, Horrela, jakinarazpen hau jasoko duten biharamunetik zenbatzen hasita hamar laneguneko epea izango dute prozeduran interesdun diren guztiek espediente hori ikusteko, egoki iritzitako alegazioak idatziz aurkezteko eta/edo egoki joko dituzten dokumentuak aurkezteko.

**Bosgarrena:** Erabakiaren berri administrazio-espedientean interesdun gisa ageri direnei ematea. Halaber, erabaki horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Alkatetzaren aurrean hilabeteko epean edo zuzenean Donostiako Administrazioarekiko auzien epaitegira jo ahal izango da, jakinarazpen hau jasoko den egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko

**Primero:** Declarar que no procede la revisión de oficio del Acuerdo Plenario de 27 de julio de 2011 del Ayuntamiento de Legazpi por el que se acordó dar inicio al expediente de contratación del servicio de limpieza de los edificios municipales, aprobando los pliegos técnicos y administrativos correspondientes.

**Segundo:** Comunicar la presente resolución al Sr. Secretario de la Comisión Jurídica Asesora en los términos previstos en el artículo 30.2 de la Ley 9/2004 de 24 de noviembre del Parlamento Vasco.

**Tercero:** Iniciar el expediente para la declaración de lesividad del Acuerdo Plenario de 27 de julio de 2011del Ayuntamiento de Legazpi por el que se acordó dar inicio al expediente de contratación del servicio de limpieza de los edificios municipales, ante la eventualidad de que el mismo se halle incurso en causa legal de anulabilidad por vulneración de la legislación, que ha derivado en la invalidez de la adjudicación realizada.

**Cuarto:** Proceder a la apertura del trámite de audiencia previa previsto en el artículo 102 en relación con el artículo 84 de la vigente Ley 30/1992 del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, para que por plazo máximo de diez días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación de la presente comunicación, todos los interesados en el procedimiento puedan consultar y ver el mencionado expediente y formular por escrito cuantas alegaciones consideren oportunas así como aportar los documentos que estimen pertinentes.

**Quinto:** Notificar la presente resolución a quién figure como interesado en el expediente administrativo, advirtiendo que contra la misma podrá interponer potestativo recurso de reposición ante esta Alcaldía y en el plazo de un mes o acudir directamente al Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Donostia interponiendo recurso contencioso

epearen barruan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztera, beti ere, Administrazioarekiko auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

administrativo en el plazo de dos meses desde su notificación conforme establece al efecto el artículo 8 de la Ley 29/1998 reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

Jarraian Alkateak laburpena egin du: Pleguak gaizki aurkeztu ziren, enpresak datuak gaizki eman zituelako. Ahalegindu gara bide motzenetik irtenbidea lortzen baino Euskadiko Aholkularitza Batzordeak ezezkoa eman digu eta orain epailearen esku dago erabakia.

A continuación el Alcalde hace un resumen: los pliegos se presentaron mal porque la empresa ofreció mal los datos. Hemos intentado encontrar el camino más corto para solucionar el tema pero la comisión asesora del Gobierno Vasco nos ha dicho que no y ahora la decisión está en manos del juez.

Zerbitzua enpresa berdinak emango du eta kostak ere bere gain hartuko ditu, akatsa berea izan zelako.

El servicio lo ofrecerá la misma empresa y los costes irán a su cuenta porque el error ha sido suyo.

Langileekin elkartuko dira honen guztiaren berri emateko.

Se reunirá con los trabajadores para informarles de todo esto.

Irizpena botaziora eraman ondoren aho-batez onartu da.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

**3. Bidezkoa bada, 24/25/29.1. AGIRRE-ETXEBERRI jarduketa integratua gauzatzeari buruzko hirigintza-hitzarmenaren lehen aldaketa behin betiko onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. 2012ko martxoaren 7an egin den hirigintza batzordeak honako irizpena proposatu dio Osoko Bilkurari:

1.- Aurkeztutako alegazioak ezestea.

2.- Legazpiko A.I. 24/25/29.1 Jarduketa Integratuari dagokion hirigintza-hitzarmenaren aldaketa behin betiko onartzea.

3.- Hartutako erabakia iragartzea.

**3. Aprobación definitiva, si procede, de la modificación del Convenio Urbanístico relativo del ámbito de Actuación Integrada A.I. 24/25/29/.1 AGIRRE-ETXEBERRI.**

Toma la palabra el Alcalde. La Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, celebrada el día 7 de marzo de 2012, le propone al Pleno Municipal el siguiente dictamen:

1.- Desestimar las alegaciones presentadas.

2.- Aprobar definitivamente la modificación del Convenio Urbanístico correspondiente a la Actuación Integrada A.I. 24/25/29.1 de Legazpi.

3.- Proceder con la publicación correspondiente.

Ane Urkiolak hartu du hitza. Bere taldeak urtarrileko osoko bilkuran behin behineko onarpenaren kontra bozkatu zuen, batez ere bi arrazoiengatik: alde batetik, hitzarmenean hitzez hitz jasotzen zen bezala aguirre echeverriko etxearen lagapena karga gabekoa zelako eta bestalde, balorazio eta ponderazioei dagokienez aplikatutako araudiarekin ez zeudelako ados. Beraz, kontrako botoa eman zuten eta osoko bilkura hartan, alkateak ez zuen beraien kontrako jarrera onartu eta interes partikularrak izan ote zituzten esan zitzaien. Ondoren aipatutako bi alegazioak aurkeztu zituzten eta bietako bat onartu zaie: etxearen legapena karga gabekoa izatea. Bestea, balorazio eta ponderazioei dagokienez aplikagarria den dekretuari buruz esan zaie, errepartzelazio plana aztertzen denean orduan ikusiko dela.

Orain aldeko botoa emango dute eta batzordean ere aldeko botoa eman zuten, baina batzordean esan zuten bezala, Alkateari eskatu nahi diote kontrako irizpideak daudenean errespeta ditzala eta ez dezala horrelako ustezko akusaziorik egin. Azken finean bertan lan egiten ari direnen sinesgarritasunari eragiten dio.

Alkateak hartu du hitza. Beraien iritziak beti hartu ditu kontuan. Bestetik daukaten txostenean jasotzen den bezala "etxea urbanizazio-zama gisa sartzeak ez die Udalaren eskubideei eta betebeharrei eragiten. Egia da lagapenak eragina duela eremuaren bideragarritasun ekonomikoan baina ez Udalaren eskubideetan eta betebeharretan" Horregatik onartu da alegazioa.

Aurkeztutako beste alegazioari dagokionez, ez da onartu aurreko legea delako aplikatu behar dena. Beraiek eskatutakoa aplikatuko balitz udaletxeak 49.000,00 € gutxiago jasoko luke. Horregatik ez da bigarren alegazioa onartu.

Ane Urkiolak hartu du hitza. Beraien alegazioak legezko kontuetan oinarritzen ziren, onartuak izan edo ez izan. Eta hori garbi utzi nahi dute.

Toma la palabra Ane Urkiola. Su grupo en el pleno del pasado mes de enero votó en contra de la aprobación provisonal principalmente por dos razones: por un lado, porque tal y como se recoge literalmente en el convenio la cesión de la casa Aguirre-echeverri era sin cargas y, por otro lado, porque no estaban de acuerdo con la normativa aplicada para las valoraciones y ponderaciones. Por tanto votaron en contra y en aquel pleno el Alcalde no aprobó su posición contraria y les dijo si tenian intereses particulares. Después presentaron dos alegaciones de las que se ha aprobado una: que la cesión de la casa sea sin cargas. La otra, la relacionada con el decreto aplicable en cuanto a las valoraciones y ponderaciones les han dicho que se verá cuando se analize el proyecto de reparcelación.

Ahora votarán a favor y también votaron a favor en la comisión pero tal y como dijeron allí, quieren pedir al Alcalde que cuando haya posiciones contrarias las respete y que no haga presuntas acusaciones ya que, finalmente, eso repercute en la credibilidad en los que estan trabajando.

Toma la palabra el Alcalde y manifiesta que siempre ha tenido en cuenta sus opiniones. Por otro lado, tal y como se recoge en el informe que tienen "la inclusión de la villa como carga de urbanización, no afecta a los derechos y deberes del Ayuntamiento. Cierto es que la cesión afecta a la viabilidad económica del ámbito pero no afecta a los deberes y derechos del ayuntamiento". Por eso se ha aceptado la alegación.

En cuanto a la otra alegación presentada no se ha aceptado porque es aplicable la anterior ley. Si se aplicará la que ellos solicitan, el ayuntamiento percibiría 49.000,00 € menos. Por eso no se ha aceptado la segunda alegación.

Toma la palabra Ane Urkiola. Ellos se basaban en alegaciones legales, sean aprobadas o no. Y eso quieren dejarlo claro.

Oscar Valbuenak hartu du hitza eta aldeko botoa emango dutela esan du. Bi alegazio aurkeztu zituzten: bat % 15eko aprobetxamenduari buruz eta hori argituta geratu da aurkeztu den txosten teknikoarekin. Bigarrena, Juanastegitik San Ignazio auzora joateko igogailuari jarraipena eman nahi dion obrari buruzkoa zen Bi eremuak egingo direnean, eraikitzailea gertutik jarraitzea eskatu du, tasatutako etxebizitzen sustapenari dagozkion obrak eta Goenaga eremuan aurreikusitako babes ofizialeko etxebizitzen obrak buru ditzan.

Alkateak hartu du hitza. Bi obrak egiteko epeak hirigintzako jarduketa-planean zehazten dira. Hasiera batean, lehenengo obra muruko bidegurutzea izango da, autobus zerbitzua jarri nahi dutelako eta, hori egiten ez bada, autobusa ezingo da goiko auzora iritsi.

Bigarren obraren epeak hirigintzako jarduketa-planean ere zehaztuko dira.

Irizpena botaziora eraman ondoren aho batez onartu da.

**4. Bidezkoa bada, 24/25/29.1 AGIRRE-ETXEBERRI Jarduketa Integratuko Hiri-antolamenduko Plan Bereziaren aldaketa behin betiko onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. 2012ko martxoaren 7an egin den hirigintza batzordeak honako irizpena proposatu dio Osoko Bilkurari:

1.- Antonio Martinez Molina jaunak aurkeztutako alegazioa partzialki onartzea eta parke berritik 5 zenbakia duen etxera sartzeko oinezko bidea egokitzea.

2.- EAJren izenean Javier Iraeta Alvarez jaunak aurkeztutako alegazioa onartzea, 3 zenbakia duen etxeari dagozkion urbanizazio kargak kentzea, eta baltzuari gogoraraztea, aurretik

Toma la palabra Oscar Valbuena. Votarán a favor. Presentaron dos alegaciones: una sobre el aprobechamiento del 15%, y este tema ha quedado aclarado con el informe técnico. La segunda alegación se refería a la obra que tiene que dar continuidad al ascensor de Juanastegi hacia San Ignacio. Solicitan que cuando se ejecuten los dos ámbitos se tenga especial interes en hacer seguimiento al constructor para que ejecute tanto la obra que está mencionado como la promoción de vivindas tasadas y VPO que se contemplan en el ámbito de Goenaga.

Toma la palabra el Alcalde. Los plazos de las dos obras se definen en el PAU. En principio la primera obra será la del cruce de muru porque tienen intención de poner el autobus y si no el autobus no podría llegar.

Los plázos de la segunda obra se concretarán también en el PAU.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

**4. Aprobación definitiva, si procede, del Plan especial de Ordenación Urbana del ámbito de Actuación Integrada A.I. 24/25/29/.1 AGIRRE-ETXEBERRI.**

Toma la palabra el Alcalde.La Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, celebrada el día 7 de marzo de 2012, le propone al Pleno Municipal el siguiente dictamen:

1.- Estimar parcialmente la alegación de D. Antonio Martinez Molina, por lo que se autoriza una entrada peatonal desde el nuevo parque a la villa nº 5.

2.- Estimar la alegación presentada por Don Javier Iraeta Álvarez en representación del PNV en lo referente a eliminar la villa nº 3 de las cargas de urbanización, así como trasladar a la mercantil, la obligación de

egina duen lagapena, lehenbailehen, eskritura publikoan jasotzeko obligazioa duela.

3.- Legazpiko A.I. 24/25/29.1 Jarduketa Integratuari dagokion Hiri-antolamenduko Plan Berezia behin betiko onar dadila, ondorengo baldintzarekin:

Onartutako alegazioak jasoko dituen testu berri bat aurkeztuko da, ondoko puntuak jasoko dituena:

- bideragarritasun azterlanetik 3 zenbakia duen etxea urbanizazio karga dela kentzea.

- 5 zenbakia duen etxearen bide-zorra jasotzea.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea Planaren ale bat bere erregistrorako.

5.- Dagozkion iragarkiak argitaratu daitezela agintzea.

Irizpena botaziora eraman ondoren aho-batez onartu da.

elevar a escritura pública, en la mayor brevedad posible, la cesión anteriormente realizada.

3.- Aprobar definitivamente el Plan Especial de Ordenación Urbana correspondiente a la Actuación Integrada A.I. 24/25/29.1 de Legazpi con la siguiente condición:

Se deberá aportar un nuevo texto que recoja las alegaciones aprobadas, esto es, que:

- Se elimine del estudio de viabilidad la villa nº 3 como carga de urbanización.

- Se recoja la servidumbre de paso peatonal a la villa nº5.

4- Remitir un ejemplar del Plan a la Diputación Foral de Gipuzkoa, para su depósito.

5.- Ordenar las publicaciones correspondientes.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

**5. Elbarreneko errauspen-labeak kokatzen diren lursailaren segregazioa eta lagapen eskritura onartzea eta emandako lizentzia berrestea.**

2012ko martxoaren 7an egin den hirigintza batzordeak honako irizpena proposatu dio Osoko Bilkurari:

1. Joan den bi mila eta hamaikako abenduaren hogeita bian, Zumarragako udalerrian bizi den Euskal Herriko Notarioen Elkargoko ANTONIO PEDRO MULA SOTO notarioaren aurrean Bergara barrutiko Zumarragan egin den finkaren segregazio- eta dohaintza-eskritura, 1593/2011 protokolo zenbakia duena, bere puntu guztietan erabat onartzea.

**5. Aprobar la escritura de segregación y cesión de los terrenos donde se ubican los hornos crematorios de Elbarrena y ratificar la licencia concedida.**

La Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, celebrada el día 7 de marzo de 2012, le propone al Pleno Municipal el siguiente dictamen:

1.- Aprobar en todos sus extremos la escritura de segregación de finca y donación realizada en Zumárraga, distrito de Bergara, el veintidós de diciembre del dos mil once ante DON ANTONIO PEDRO MULA SOTO, Notario del Ilustre Colegio Notarial del País Vasco, con residencia en esta villa número de protocolo 1593/2011.

2. Joan den 2011ko ekainaren 9an, 2011/199 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartu zen Legazpiko 1130 liburukian, 161 liburuan, 168 folioan jasotako 955 finka erregistralaren segregazioa berrestea. Honakoa da bereizitako lursailaren deskribapena: "**LEGAZPI**KO udalerrian dagoen **LURSAILA**, lau mila hirurehun eta hamasei metro eta hogeita bost dezimetro karratuko azalera duena. Mugak: iparraldean, udal jabetza; hegoaldean, Ana Maria Zaldua Arruebarrena andrearen jabetzako lursail nagusia; ekialdean, Ana Maria Zaldua Arruebarrena andrearen jabetzako lursail nagusia; eta mendebaldean, Ana Maria Zaldua Arruebarrena andrearen jabetzako lursail nagusia".

Gai hau aspaldi egindako salmenta batetik dator. Bere garaian ez zen udaletxearen izenean eskriturak egin eta orain segregazioa egin behar denez, udaletxearen izenean jasoko da eskritura eta notariotik pasatuko da.

Irizpena botaziora eraman ondoren aho-batez onartu da.

LANGILEA:

**6. Bidezkoa bada, basoko peoiak eta mantentze-lanetarako ofizialak lanpostuak baloratzeko aurkeztutako eskaerak izapidetuko direla onartzea.**

2012ko martxoaren 6an egindako Balorazio batzordeak honako irizpena proposatu dio osoko bilkurari:

1. Mantentze-lanetarako ofizialak lanpostua baloratzeko aurkeztu duen eskariaren izapidetzea onartzea. (30202 kodea).

Irizpena botaziora eraman ondoren aldeko 10 botorekin (Bilduko zinegotziak eta EAJko zinegotziak) eta 3 abstentziorekin (PSE-EE eta H1eko zinegotziak) onartu da.

2. Ratificar la segregación de la finca registral 955 de Legazpi, tomo 1130, libro 161, folio 168, concedida mediante Decreto de Alcaldía 2011/199 de fecha 9 de junio de 2011 del terreno cuya descripción es la siguiente: "**PARCELA DE TERRENO** en jurisdicción de **LEGAZPI**, que mide cuatro mil trescientos dieciséis metros veinticinco decímetros cuadrados. Linda: Norte, propiedad municipal; Sur, finca matriz propiedad de Doña Ana María Zaldua Arruebarrena; Este, finca matriz propiedad de Doña Ana María Zaldua Arruebarrena y Oeste, finca matriz propiedad de Doña Ana María Zaldua Arruebarrena".

Este tema viene de una venta realizada hace tiempo. En su momento no se escrituró a nombre del ayuntamiento y ahora como hay que realizar la segregación, hay que escriturar a nombre del ayuntamiento y pasar por la notaría.

Sometido el dictamen a votación es aprobado por unanimidad.

PERSONAL:

**6. Aceptar a trámite, si procede, las solicitudes de valoración realizadas por el peón forestal y por el oficial de mentenimiento.**

El Comité de Valoración celebrado el 6 de marzo de 2012, le propone al Pleno el siguiente Dictamen:

1. Aceptar a trámite la solicitud de valoración realizada por el Oficial de mantenimiento. (Código 30202).

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 10 votos a favor (concejales de Bildu y PNV) Y 3 abstenciones( concejales de PSE-EE y H1).

| | |
| --- | --- |
| 2. Basoko peoiak lanpostua baloratzeko aurkeztu duen eskariaren izapidetzea onartzea. (30401 kodea). | 2. Aceptar a trámite la solicitud de valoración realizada por el Peón Forestal.(Código 30401) |
| Irizpena botaziora eraman ondoren aldeko 10 botorekin (Bilduko zinegotziak eta EAJko zinegotziak) eta 3 abstentziorekin (PSE-EE eta H1eko zinegotziak) onartu da. | Sometido el dictamen a votación es aprobado con 10 votos a favor (concejales de Bildu y PNV) Y 3 abstenciones( concejales de PSE-EE y H1) |
| Javier Iraetak hartu du hitza ofizioz baloratu behar diren hiru lanpostu daudela esan du. Zeintzuk dira?. | Toma la palabra Javier Iraeta y comenta que hay tres valoraciones de oficio. Pregunta cuales son. |
| Idazkariak hartu du hitza Udal Arkitektoa, Kultur etxeko Ordenantza (lanpostu berria delako), zeregin askotako peoietako bat (lanpostu berria delako) azken bi hauek osasun-zentrotik mugitutako langileak dira eta mantentze-laneko 1. Mailako ofizialarena | Toma la palabra la secretaria. Son la arquitecta municipal, el ordenanza de Kultur etxea (que es un puesto de nuva creación) y el peón de oficios diversos (que también es puesto de nuva creación). Los dos últimos eran trabajadores del centro de salud. Y por último el oficial de primera de mantenimiento. |
| Alkateak, arratsaldeko 13:30ak direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut. | El alcalde levanta la sesión, siendo las 13:30 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, la secretaria, doy fe. |

| | |
| --- | --- |
| Akta hau 2012/03/28an egindako bileran onartu zen:<br>☒ bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.<br>☐ baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak. | Este acta fue aprobada en la sesión del día 28/03/2012:<br>☐ en su integridad, sin ninguna objeción.<br>☐ si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas. |
| Ainhoa Urruela Bordegarai<br>Idazkaria | Kepa Urzelai Goitia<br>Alkatea |